

CAMILLO GOLGI

Pili Kaltzada*



Mediku eta histologo italiarra Brescia ondoko Corteno herrian jaio zen 1844an. Bere familian medikuntzarako zaletasun handia zegoen eta Camillo gazteak ere norabide horretan eman zituen bere urratsak. 1865ean Paduako Unibertsitatean doktoratu zen. Berehala hasi zen lanean eta hasieran psikiatriaz arduratu bazen ere, ehunak eta zelulak ikertzen eman zituen urterik oparoenak. Paviako Unibertsitatean laguntzaile gisa egin zuen lan eta 1872 eta 1875 bitartean Abbiategrosso-ko Ospitalean aritu zen. Hortxe egin zuen ondorengo ikerketetarako funtsezkoa suertatu zen aurkikuntza.

Ordurarte Fleming, Koch eta Ehrlich-ek substantzia organikoak erabiltzen zituzten ehunak tindatzeko. Prozedura horren bidez izan ere, giza begiarentzat ikustezinak diren elementuak agerian geratzen ziren. Golgik zilarrezko gatzak erabili zituen zeregin be-

rean eta ordurarte ezagutzen ez ziren zelula-egiturak ikusi ahal izan zituen.

Zilarrezko gatzak erabiliz, nerbio-sistemaren ehun-egitura aztertu ahal izan zuen. Zelula-egitura desberdinak aurkitu zituen eta horien funtzionamendua zehaztasun handiz deskribatu zuen. Besteak beste, nerbio-sisteman oinarritzko nerbio-zelula zegoela demostratu ahal izan zuen. Geroztik, Golgiren zelula izenaz ezagutzen da gainerako nerbio-zelulak lotzen dituen egitura berezia. Aurkikuntza hori gaur egungo neurologiaren abiapuntua dela esan ohi da. Ikusitakoak Waldeyer-ek emandako teoria berretsi egiten zuela esan zuen Golgik. Ordurarte izan ere, hipotesi hutsa zen nerbio-zelulen arteko lotura erabatekoa ez dela eta egitura horien artean sinapsia izeneko hutsuneak zeudela zioen teoria.

1880.ean tendoietakoa nerbio-egitura aurkitu zuen. 1883an Golgiren aparatua izenaz ezagutzen den ehun-egitura aurkitu eta deskribatu egin zuen. Zenbait

zelulen zitoplasman tolesturik egoten den besikula- eta mintz-multzoa da eta entzimak edota hormonak metatzeaz eta garraiatzeaz arduratzen da.

Golgiren aparatuen berri zabaldu zenerako, Sienako Unibertsitateko anatomia-irakaslea izana zen eta Paviako Unibertsitatean histologia eta patologia irakasten zituen.

1880az geroztik, paludismoari buruzko ikerketak egin zituen, gaixotasunaren jatorria eta ondorengo bilakaeraren arteko loturak aztertuz. Lan horren emaitza paludismoaren agerpen desberdinei buruzko ikerlana da.

1906an Medikuntzako eta Fisiologiako Nobel Saria eskuratu zuen Ramon y Cajal-ekin batera. Ikertzen eta irakasten segitu zuen Golgik 1926an Paviako bere etxean herio bila joan zitzaion arte.



* ZETIAZ - Elhuyar